

Hondakin plastikoen bilketa egokia – Argibideak eta betebeharrak

Kaixo,

Aurten, Bizkaiko baserri hondakinen gaikako bilketaren barruan, gutun honetan adierazten diren materialak eta berton adierazitako baldintzak betetzen dituztenak soilik batuko dira.

Halaber, azken urteetan plastikoak belarrarekin, lurrarekin, alanbreekin, hildako animaliekin, eta era guztietako zaborrarekin nahastuta bota izan dira, kasu askotan. Horrek birziklatzea ezinezkoa egiten du, azken finean, bilketa-zerbitzuaren helburua ez betetzea dakar eta kostua handitzen du, eta bere jarraipena arriskuan jartzen du.

Hauek izango dira batuko diren materialak, **bata bestearengandik banatuta** egon behar dira, bakoitza bere aldean:

- Negutegiko beheko plastikoa
- Negutegiko goikaldeko plastikoa.
- Belar-bola eta siloetako plastikoa.
- Sokak eta sareak.
- Ureztatze hodiak.
- Kutxak eta bidoiak (hondakin arriskutsuak ez direnean).

Honako baldintzak bete beharko dira:

- Plastikoa garbi entregatu behar dira, lur eta belar hondarrik gabe.
- Plastikoa lehor eta ahal dela tolestuta edo biribildua entregatzea gomendatzen da.
- Sokak eta sareak banatuta jarri behar dira:
- Beste plastikoen kasuan (ureztatze hodiak, kutxak, bidoiak...) prest gaude batzeko, baina beti ere aparte egon behar dira.

Ez da onartuko baldintza hauek betetzen ez dituzten kargak. Horretarako inspektzioak egingo dira ustategietan eta baita ere tratamendu-destinoan. Alde horretatik, hondakinen kudeaketa desegokiak ondorioak izan ditzake PAC-aren laguntzak jasotzean, baldintzazkotasun indartua betetzean eragiten duelako, abenduaren 27ko 1049/2022 Errege Dekretuan edo Apirilaren 8ko 7/2022 Legetik eratorritako zehapenak.

Zerbitzuaren erabilera egokia bermatzeko, erantsita doan erantzukizunpeko adierazpen-orria sinatu behar da eta bilketa egunean sinatuta entregatu beharko da.

Guztion artean hondakinak modu arduratsuan kudeatzea da helburua, ingurumenaren alde eta zerbitzuaren jarraipena bermatzeko.

Eskerrik asko zuen lankidetzagatik.

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA – Hondakin plastikoen bilketa

Ni, _____,

NAN: _____,

Ustiategiaren izena/zenbakia: _____,

Helbidea: _____,

Bizkaiko Foru Aldundiak, eskualdeko Landa Garapenerako Alkartearen laguntzaz egiten den hondakin plastikoen bilketaren zerbitzua jasotzeko, honako hau **adierazten dut**:

- Negutegiko plastikoak eta/edo silo bolen plastikoak **garbi** entregatuko ditudala, belar, lur, alanbre, edo bestelako zaborrik gabe.
- Plastikoetatik **soka, sare, alanbre eta antzeko material guztiak** kenduko ditudala.
- Plastikoak **egoera egokian** eta bilketa zerbitzuak eskatutako baldintzetan aurkeztuko ditudala.
- Baldintzak betetzen ez baditut, bilketa zerbitzuaren prestatzaileek egoera txarrean dagoen karga **ez jasotzeko eskubidea** duela onartzen dudala, nik neuk hondakinak tratatzeko betebeharra neure gain hartuz.
- Ematen dudan informazioa **egiazkoa** dela eta nire erantzukizunpean sinatzen dudala.

Data: ____ / ____ / 2026

Sinadura: _____